


Bai Euskarari Akordioa Altzan

El Acuerdo Bai Euskarari en Altza



Bai Euskarari Akordioaren ekimenak Altzan Iniciativas del Acuerdo Bai Euskarari en Altza

Konpromisoen segimendua > 23 enpresa, saltoki eta era guztietako entitatek hartu dute beren erakunde euskalduntzeko konpromisoa. Ezartzen ari diren neurrien segimendua egiten ari gara, eta urtarrilean batzarra egin genuen guztiakin abian jarri dituzten neurrien inguruan hitz egin, beharrak ezagutu, irtenbideak porposatu eta elkarren berri izateko.

Seguimiento al proceso de compromiso > 23 empresas, comercios y otras entidades han asumido el compromiso de euskaldunizar sus entidades. Estamos realizando el seguimiento de la aplicación de dichas medidas, a fin de detectar las necesidades y proponer soluciones a cada caso.



Norbanakoon konpromisoak > Compromisos personales >

Zu ere! > lagun hauek erabaki dute euskaraz bizitzeko urratsak ematea. Izan zu ere konpromiso hartzaile!

Comprométete > Ellos y ellas han decidido dar pasos para llegar a vivir en euskara. ¡Anímate!

Aintzane Ollokiegi, Divi Arzallus, Imanol Olaizola Ines Perez, Jon Urrusolo, Juan González, Koldo Kabxo, M^a Jose Luque, Mikel Gorrotxategi, Sara Soria, Unax Seges, Vanessa González, Xabi Mañoso...

M^a Loli Egaña
Jan Casado
Isa Pac
Lurdes Zapiain
Ion Burgui
Roberto Arin

Elkarlan hitzarmena berritu dute Bizarrainek eta Kontseiluak >

2001ean abiatutako elkarlanarekin jarraituz, aholkularitza eta laguntza eskainiko dio Kontseiluak Bizarraini, Bai Euskarari Akordioarekin jarraitzeko.

Kontseiluaren izenean Xabier Mendigurenek eta Bizarrain elkarteko Arantza Hernandezek sinatu dute hitzarmena.

Bizarrain y Kontseilua renuevan su acuerdo de colaboración >

Continuando con el acuerdo de colaboración iniciado en 2001, Kontseilua proporcionará asesoramiento a la asociación Bizarrain para el desarrollo del Acuerdo Bai Euskarari.

Xabier Mendiguren, en nombre de Kontseilua, y Arantza Hernández en el de Bizarrain han firmado el acuerdo.



Herrerako Sportingen eguberrietako 1. Bai Euskarari Futbol Festa

1. Torneo de Navidad de Fútbol Bai Euskarari organizado por el Sporting de Herrera.

Santo Tomas bezperan ospatu zen, Herrerako futbol zelaian. Altzako eskola gehienetako haurrek parte hartu zuten euskarari baietz esateko ekimen honetan.

Se celebró la víspera de Santo Tomás, en el campo de fútbol de Herrera. Participaron en esta iniciativa diciendo si al euskara alumnos de la mayoría de los colegios altzatarras.



"Altzan Bizarrain..."



"euskara sabu itzuli arte bizarrin ez egin"

euskararen donostia

patronatu

saski-naski

K o r r i k a
euskararen alde!
Martxoaren 12an,
Altzan izan dugu
eta dagoeneko
Bilbora iristear da.
Parte har ezazu
Bilboko jaian
a z k e n
kilometroetan
korrika eginez, eta
ekitaldiekin
gozatuz.

**¡Korrika en favor
del euskara!**
El 12 de marzo,
nos visitó en Altza
y ya está a punto
de llegar a Bilbao
Participa en la
fiesta de Bilbao
corriendo los
últimos kilómetros
y disfrutando de
los actos
organizados.

14. Korrika **ni ere bai!** **AEK**
Euskal Herria euskalduntzen **ORREAGA-BILBO'05**
www.korrika.org



943 393 936

AEKren talde eta ikastaro bereziak > Aurten ere eskaintza berezia egin du Azpil AEKk. Oraingoan gurasoentzako euskara ikastaroa, Altza ikastetxean. Duela bi ikastaro, Herri Ametsa ikastolan egin zen, eta iaz, AUZOA elkarteko merkatari eta ostalariekin.

Grupos y cursos especiales de AEK > Este año también está en marcha esta propuesta de Azpil AEK con curso de euskara para padres y madres, en el colegio público Altza. Hace dos cursos se realizó en la ikastola Herri Ametsa, y el año pasado, con los comerciantes y osteleros de la asociación AUZOA.

"Altzan Bizarain..."



...euskara salbu ikusi arte bizarrik ez egin"

Bizarrain
elkartearen
batzarra
Hurrengo
egunotan egingo
da. Orain arte
egindako lanaren
balantzea eta
2005 urterako
asmoak azalduko
dira.
Bilera irekia
izango da.

**Reunión de la
asociación
Bizarrain**
Se celebrará en
próximas fechas.
Se presentará el
balance de la labor
realizada hasta el
momento, y las
propuestas para el
año 2005. La
reunión será de
caracter abierta.

Bizarrain kultur taldea
Larratxo 55, 20017, Altza
943 397 464
bizarrain@altza.net

**Euskaldun Berriak
Altzan**


Guztiok ez genuen
izan euskara
seaskan jasotzeko
aukera. Horregatik,
euskaltegian edo
ikastetxean ikasi
genuen askok.
Orain, euskara
ikasi dugun
altzatarron
zerrenda ahalik eta
zabalena osatu
nahi du gure
elkartek. Lagundu
zerrenda egiten,
deitu edo jo gure
helbidera.
Milesker!

Todos no tuvimos
la oportunidad de
aprender euskara
en la cuna. Por
eso muchos lo
aprendimos en el
euskaltegi o en la
escuela. Ahora,
nuestra asociación
quiere realizar el
listado de los y las
altzatarras que
hemos aprendido
euskara.
¡Ayúdanos!
Llámanos o
dirígete a nuestra
dirección. ¡Gracias!



Hemen da Donostialdeko
euskaldunok behar genuena,
bertako albisteak euskaraz
emango dituen egunkaria.
Gainera, doan!!

Jaso nahi baduzu, bete ezazu
orria eta helaraz iezaguzu



1. > Lau Haizeta
kalean eraikitzen
ari diren etxean
jarritako oharrak
gazteleraz bakarrik
ageri dira.

2. > Uda l
autobusetan jarri
dituzten pantailak
informazio gehiena
gasteleraz ematen
dute; Ez da gorde
euskararekiko
oreka.

1.> Los avisos del
edificio en
construcción de la
calle Lau Haizeta
están sólo en
castellano.

2. > Las pantallas
instaladas en los
autobuses
municipales dan la
información sobre
todo en castellano;
No hay equilibrio
respecto al euskara.



Atal hau gorde nahi dugu euskararen aldeko urratsak nabarmentzeko, baina baita oraindik zuzendu beharrekoak aipatzeko. Zuk ere horrelako kasuren bat ezagutuz gero, bidal iezaguzu argazkia. Gure helbidea: bizarrain@altza.net



Herri Ametsa ikastola
Berra bidea, 30
Tel.: 943 393 520



Bizarrair Kultur Taldea
Larraundi kalea, 30
Tel.: 943 352 211



Menabi-Skoda kontzestonarioa
Larraundi, 26
Tel.: 943 404 243



Altza uskaltegia
Larraundi, 34
Tel.: 943 352 411




Urtziabarategia
Larraundi Bertsolaria, 14
Tel.: 943 352 211



Marqués y Múgica Ahoikularitza
Larraundi, 43
Tel.: 943 404 012



Gaztearen Inberru
Larraundi Bertsolaria, 14
Tel.: 943 352 211



Barruola paperdegia
Harri Zahar, 11
Tel.: 943 352 211



Valentín López iturgintza
Berra bidea, 25-A
Tel.: 943 357 596



Altza Udal Kulturdegia
Darieta bidea, 2/g
Tel.: 943 352 457



Berrato bidea
Darieta bidea, 24
Tel.: 943 353 477



Berra
Darieta bidea, 24
Tel.: 943 353 477



Estakoa
Sara atea, 1
Tel.: 943 352 211



Donostiako Eraikuntza Institutua
Molino bidea, 3
Tel.: 943 352 211



Neo Etxea
Jubilatu eta Pensionatuak elkartea
San Marzial plaza, 2/g
Tel.: 943 352 998



Zelai Bañales Farmacia
Larraundi, 34
Tel.: 943 352 570



Alde gaztegia
Larraundi, 34
Tel.: 943 352 211



2004-VI. Casares kultur ebea. Convidatu ugari azaldu zen ekitaldira eta Trintxer abesbatzak agurtu egin zuen. Bizarrair elkarteak ordezkaritza Arantza Hernandezek, Anzoa merkatari elkarteak zuñenda Ritzako Itziar Prietok, Euskararen Udak Patronatuko Zuzendaria Edurne Otamendik eta Kontseiluko Idazkari Nagusi Xabier Mendigurenek hartu zuten hitza. Amaieran Herri Ametsa ikastolako dantzariak aurrekoa eskaini zuten.



VI-2004, casa de cultura Casares. Asistieron numerosos invitados y el coro Trintxer dio inicio al acto. Arantza Hernandez (asociación Bizarrair), Itziar Prieto (asociación de comerciantes Anzoa), Edurne Otamendi, Directora del Patronato de Euskara y el Secretario General de Kontseilua, Xabier Mendiguren dirigieron unas palabras a los asistentes. Para finalizar, las dantzaris de la ikastola Herri Ametsa bailaron un aurreku.



Altza Udal Kulturdegia, 4. alea / 2005

erakundeak eskuratu zuten Bai Euskarari ZIurtagia Altza, ekainean. Goiko planoan dituzue kokatuta.

Guztira 800 ziurtagiri baino gehiago banatu ditu Kontseiluak Euskal Herrian.

entidad de Altza para la recepción del Certificado Bai Euskarari en junio. Aparecen señalados en el plano de arriba.

Kontseilua ha repartido hasta la fecha más de 800 certificados.

proiektua: 1. Bai Euskarari Akordioa Altzan

Proiektuaren HELBURUAK
 Altzako gizarte eragileek beren erakundea euskalduntzera iristeko neurriak hartu eta betetzea, eta euskararen aldeko herri giroa indartzea.

Aziproiektuak	Epeak/Egutegia	Proiektuaren EBALUAZIORAKO ADIERAZLEAK	
		Ekintza adierazleak	Eragin adierazleak
1.1.- Konpromisoak hartu dituzten eragileen jarraipena egin eta laguntza ematea.	Urte osoa, bi fasetan: 1-Ekaina> ebaluazioa. 2-Gainerako hilabeteak, hauek izan ezik: Martxoa, apirila eta maiatza > ziurtagiriaren promozioa Abuztua >oporak	1. Konpromiso hartzaileei aholkularitza eta laguntza ematea. 2. Konpromiso hartzaileei segimendua egitea. 3. Eragileei konpromisoen betetze maila neurtu eta konpromiso berriak proposatzea.	4. Konpromiso hartzaileen %90ak euskalgintzaren aholkularitzaren balorazio ona egitea. 5. Konpromiso hartzaileen %50ak batzarrean parte hartzea. 6. Banaka batzartzea, urtean behin konpromiso hartzaile guztiekin, eta beste harreman bat telefonoz edo eskutitzez (laguntza) %90arekin. 7. Konpromiso hartzaileen %90a konpromisoak betetzen aritzea. 8. Ziurtagiria eskuratu gabe konpromisoak hartutakoen % 30ak Ziurtagiria eskuratzea. 9. Ziurtagiridunen %85ak berau berritzea.
1.2.- Gizarte eragile berriak Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratzera gonbidatzea.	Martxoa, apirila eta maiatza.	10. 80 erakunde berri konpromisoak eta Bai Euskarari Ziurtagiria proposatzea.	11. Erakundeen % 80ak konpromisoak hartzea. 12. Konpromiso hartzaileen % 40ak Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratzea.
1.3.- Eragite lanaren bidez, euskararen aldeko herri giroa indartu eta konpromisoak hartu dituzten enpresa, elkarte eta erakundeak ezagutarazi eta berriak erakarri.	Urte osoa	13. eragite plana idatzi eta ezarri. 14. erakundeen inplikazioa sustatzea prozesuaren gizarteratzen.	15. Eragite planeko ekintzen %80a betetzea. 16. Inkesta bete duten herritarren • %75ak prozesuaren berri izatea, • %50ak Ziurtagiriaren berri izatea. 17. Konpromiso hartzaileen %50a prozesua gizarteratzen inplikatzea

Proiektuaren AURREKONTUA 2005

TEKNIKARIAREN LAN SARIA	
KONTSEILUAREN AHOHKULARITZA	
KOMUNIKAZIOA (WEB ORRIA, KARTELAK...)	
TELEFONO GASTUA	
GESTORIA	
OINEGITURA ETA BESTERIK	
guztira	
Donostiako Udalaren ekarpena	

Proiektuaren ARDURADUNAK

Zigor Etxeburua.
 Teknikaria: Jon Sanchez.

Proiektuaren LANTALDEA

BizaRa In-en teknikaria: Jon Sanchez.
 Kontseilua-ko teknikaria.
 Euskararen Udal Patronatuko teknikaria.

BizaRa In elkartearen balantzea. 2004.

2004rako onartu genuen kudeaketa planaren gainean egin dugu balorazio hau.

• 1.1. AZPIPROIEKTUA: *Konpromisoak hartu dituzten eragileen jarraipena egin eta laguntza ematea.* 2003n konpromiso hartu zituztenetatik 20k jarraitzen dute. Zazpi erakunde desagertu dira, lau erakunde beste erakunderen batekin ari dira garatzen konpromisoak eta hiruk ez dute jarrera positiboa erakutsi. Hogei konpromiso hartzaileetatik 13ren *segimendua* egin da, eta beste 7ak ziurtagiridunak direnez Kontseiluak egin dien ebaluazioa onartu dugu segimendutzat. Esan behar da konpromiso hartzaileok bete dituztela hartutako konpromisoak. *Eragileak batzarrean* biltzeari dagokionez, hezkuntza alorrekoekin egin da, Hezkuntza Batzordea-ren bidez. *Laguntza teknikoari* dagokionez, eskaini bada ere, 3 eragilek besterik ez dute eskatu halakorik (itzulpen txikiak, hiztegiak non lortu...). Azkenik, adierazi eskuorri bat banatu dela eragileen artean, konpromisoen ezarpenean laguntza gida moduan.

2003n *Bai Euskarari Ziurtagiria* eskuratu zuten eragileetatik 4k berriro dute ziurtagiria. Altza Kiroldegiaren ebaluazioa atzeratu da, barne arazo larriak dituztelako. Zalantzakoa da jarraituko ote duten. Era berean, *Bai Euskarari Ziurtagiria* eskuratu ez zuten atal honetako eragileetatik batzuk ziurtagiria eskuratzeko interesa azaldu dute. Martxotik aurrera ariko gara beraiekin.

Prozesuaren gizarteratzeari dagokionez, ez da lortu elkarte gehienak inplikatzeari. Autokritika egin beharra dago, gutxiegi insistitu baitugu arlo honetan. Hala ere, ohiartzun handia izan duen ekintza burutu dugu Herrerako Sporting taldearekin eguberritan: *Bai Euskarari futbol torneoa*. 8 ikastetxe eta hainbat futbol taldeetako 200 hurrek parte hartu zuten. Arrakasta itzela izan da eta errepikatzeko asmo argia azaldu dute alde guztiek.

Epeei dagokionez, ez dira bete aurreikusita bezala. 2005erako egutegia prestatu dugu jada eta planifikazio horren bidez hobe aritzea espero dugu. Hemendik aurrera lan guztiak ziurtagiria banatzeko ekitaldiaren inguruan ardaztuko dira.

• 1.2. AZPIPROIEKTUA: *Bigarren taldeko erakundeak konpromisoak hartu eta Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratzera gonbidatzea.*

Nabarmendu behar da konpromiso hartzaileak eta *Bai Euskarari Ziurtagiria* eskuratu dutenak asko izan direla: 43 eta 18, hurrenez hurren. Aurreikuspenak gainditu egin dira, oso positiboa izan da emaitza. *Epeak* zertxobait atzeratu dira, ekainean amaitu baitzen, apirilera amaitu nahi bazen ere.

• 1.3. AZPIPROIEKTUA: *Erakunde eta enpresa berriak Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratzera gonbidatzea.*

Epeei dagokionez, ez dira bete atal honetarako aurreikusitako epeak. Lan honi otsailean ekin behar bagenion ere, uztailan ekin diogu. Bigarren ataleko konpromiso hartzaileekin buru-belarri aritu izanak atzeratu du lan hau. *Bai Euskarari Ziurtagiria* banatzeko ekitaldiaren irudiak eta eragileen izenak biltzen dituen eskuorri bat osatu dugu, bisitetan eragileei emateko, haien interesa piztu asmoz.

ONDORIOAK >

Oro har, balantze ona egiten dugu:

- ✓ Emaizak, *ziurtagiritan*, oso onak izan dira.
- ✓ Konpromiso hartzaile berriak erakartzeko lana egin da.
- ✓ Konpromiso hartzaileei *segimendua* egin zaie.
- ✓ *Eragite lanean* hainbat ekimen arrakastatsu burutu dira eta ziurtagirien emaitza ona eragin dute. Giltzarritzko faktorea dela ikusi da.
- ✓ Emaizten jarraipena egiteko *adierazle sistema* ezarri dugu; prozesua uneoro kontrolpean izan, akatsak detektatu, doikuntzak erabaki eta balorazio orekatuak egiten laguntzen ari zaigu. Gainera, 2005erako planifikazioa osatu dugu, lan guztiak ziurtagiria banatzeko ekitaldiraren inguruan ardaztuz.

Hobetu beharreko arloak:

- ✓ *Segimenduko lana* abiatu dugu baina are gehiago ahalegindu beharra ikusten dugu;
- ✓ *Eragite lana* gehiago indartu eta planifikatu behar dugu, *eragite plan* bat sortuz.
- ✓ Donostiako udalarekin sinatutako hitzarmena berritzea gehiegi luzatu da berriro ere, eta Udalaren presentziak "ez-kualitatiboa" izaten jarraitzen du.